# GETXON BIZI ...eta jolastu!

**Getxon umeentzako eskaintza oso urria da, azpiegitura eta zerbitzu aldetik. Hori dela eta, EH Bildutik honako proposamena lantzen ari gara, 150 ekarpen baino gehiago jaso ostean. Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!**

La oferta para el público infantil en Getxo es muy escasa (infraestructuras, servicios...). Desde EH Bildu estamos trabajando la siguiente propuesta, después de recabar más de 150 propuestas. ¡Muchas gracias por participar!

## 1 LUDOTEKAK ETA TXIKIGUNEAK AUZOETAN




**Getxok gaur egun Ludoteka bakarra du Areetan. Argi eta garbi, ez da nahikoa. Ez dago zalantzarik: ludotekak eta txikiguneak behar ditugu auzoetan. Areto estaliak, begiraleekin, tailerrekin, erabilera anitzetarako gelak... eta euskara ardatz izango dutenak. Eskolekin ere akordioak bilatu daitezke jolasguneak irekitzeko eskola orduetatik kanpo.**

Getxo tan solo tiene una ludoteca en Areeta. La oferta es claramente insuficiente. Necesitamos ludotecas y txikigunes en todos los barrios, con espacios cubiertos, monitores, talleres, salas polivalentes... y con una programación en euskera. También se pueden buscar acuerdos con las escuelas para abrir los patios escolares fuera del horario lectivo.

## 2 PARKE ESTALIAK: HOBETU ETA GEHITU



**Gaur egun ditugun parke estaliak hobetu behar dira, batik bat euria eta haizea egiten duenean erabiltzeko. Aterpe batzuk jarri eta kendu daitezke sasoiaren arabera. Horrez gain, parke gehiago estali daitezke auzoetan, eta gune irekiren batean ere aterpea jar daiteke, kolunpiorik gabe, korrika egin eta jolasteko oztoporik gabe.**

Se deben mejorar los parques cubiertos, sobretodo para que puedan ser utilizados los días de viento y lluvia. Hay cubiertas que se pueden quitar y poner dependiendo de la época. Además, se pueden cubrir más parques en más barrios, y cubrir algún espacio abierto, sin columpios ni obstáculos, simplemente para correr y jugar.

## 3 PROGRAMAZIOA: EZ DA NAHIKOA



**Umeei begirako eskaintza ez da nahikoa. Programazio anitzagoa behar dugu (antzerkia, musika, pailazoak, zinea, txotxongiloak, txangoak, eskulanak...), prezio merkeagoan eta euskara hutsez. Kalean ere ekimenak antolatu behar dira, eta ez bakarrik Muxikebarri eta RKEn. Dinamizatzaileak eta ipuin kontalariak parkeetan, plazetan... "Kale fest" formatua mantendu eta kale-zinema antolatu.**

La oferta infantil es insuficiente. Necesitamos una programación más variada (teatro, música, payasos, cine, marionetas, excursiones, manualidades...) a precios más asequibles y en euskera. La oferta no debe limitarse a organizar actividades en Muxikebarri y RKE: dinamización en parques y plazas, cuenta-cuentos, etc. Mantener el formato "Kafe fest" y organizar cine infantil en la calle.

## 4 GETXOLANDIA ETA UDALEKUAK




**Getxolandiak oso balorazio negatiboa du erabiltzaileen artean. Aukera ezberdinak aztertu behar dira, leku estali batean antolatzeko eta bere eskaintza hobetu eta handitzeko (adinen araberakoa, puzgarriekin...). Udalekuetan ere eskaintza handitu beharra dago: plaza gehiago, merkeago eta anitzagoa (kultura eta sormena lantzeko).**

Getxolandia tiene una valoración muy negativa. Debemos analizar diferentes opciones para buscar un lugar cubierto y mejorar su oferta (diferenciada por edades, hinchables...). La oferta de udalekus también es muy escasa: necesitamos más plazas, a precio más asequible y más variada (trabajando la creatividad, el arte...).

## 5 GUNE BERDE ETA BASATIAK



**Umeentzako gune berde eta basatiak nahi ditugu: landak, egurrezko jolasak, rokodromoa, tirolinak, ingurumenarekin lotutako tailerrak... eta ez bakarrik parke artifizializatuak eta porlana.**

Necesitamos espacios verdes para niños y niñas. Un espacio más "salvaje" con campas, juegos de madera, rocódromo, tirolinas, talleres relacionados con el medio ambiente... y no solo plazas llenas de cemento.

**Eskerrik asko zuen ekarpenengatik!**
**Ideia gehiago bidaltzeko: getxo@ehbildu.eus**

ehbildu GETXO